

Irailak ez du errurik



MAIALEN ARTEAGA
KAZETARIA

Iraila iritsi da eta errua bota diot berriro. Ez da urte erraza izan, uda samurra ere ez. Ekainean honezkero aurreikusten genuen zaplaztekoa latza izango zela, baina jaso ditugun guztien ostean hirugarren masailik ez zaigu gelditu. Aingura astun bat daramagu denok oinetatik zintzilik, eta zama hori garraiatzen genuela berrikasi behar izan dugu oinez bi urte hauetan. Baina, errua irailak dauka aurten ere, ez aingura hanketara lotu digunak.

Aspalditik gaude triste, nekatuta eta haserre, baina errazagoa da kulpaa uda osteko honi botatzea. Errazagoa da hori, gure ustezko gorputz egonkorretan ireki diren pitzadurak aitortzea baino. Errazagoa, urte honetan galdu ditugun lagunen hutsuneak eragiten diguna aitortzea baino, zaintza lanen krisiak gure etxea nola lurrikaratu duen onartzea baino, lanean duzun ziurgabetasuna berbalizatzea baino, motibaziorik ez duzula aitortzea baino; oinetan lotuta daramazun ainguraz hausnartzea baino.

Nekatuta nago. Frustratuta. Denborak ihes egiten didala sumatzen dut, eta hura harrapatzeko korrika egin ezin

Ez da zilegi zure herriko parkean lagunekin lata batzuk edatea, baina zilegi da karrera amaitu eta lanerako aukerarik ez dagoenez hirugarren master batean izena eman behar izatea

dudala. Nire gurasoak gaztaroaz mintzatzen diren bezala oroitu nahi dut nik nirea, baina etorkizuneko nostalgiarako ateak ixten ari zaizkit apurka-apurka muturren parean. Gazteok obeditzetik haratago bizi proiektu bat dugula dio kantu batek, baina desobedientzia minimoa ere ez da zilegi oraingo belaunaldi berrirentzat. Ez da zilegi zure herriko parkean lagunekin lata batzuk

edatea, baina zilegi da karrera amaitu eta lanerako aukerarik ez dagoenez hirugarren master batean izena eman behar izatea. Ez da zilegi militantziarako bilerak aurrez-aurre izatea, baina bai ehun pertsonako ikasgeletan azterketa presentzialak egitea. Ez da zilegi gure ikuspuntua plazaratzea-komunikabideetan “negarti”, “berekoi” edo “hiltzaile” deitu gaituztenean, baina zilegi da bi urte hauetan guri buruzko titularrak irakurri behar izatea. Gure tristura, haserre eta frustrazioa ez da zilegi inoiz, eta akaso hori dakigulako islatzen dugu plastikozko zoriontasuna sare sozialetan, gerora beste aldaera batzuekin lehertzen bagara ere. Gure suizidio tasaren gorakadan gorpuzten bada ere.

Nekatuta nago. Frustratuta. Baina errua irailarena da. Errazagoa delako eztanda eragilea jomugan jartzea, leherketa berriak saihesteko zergatien analisi bat egitea baino. Akaso, horregatik egiten dizkiote hainbeste kanta hilabete zikin honi. Eta irailaz ari naizen bezala ari naiz gazteez; baina guri, gazteoi, irailari ez bezala, ez digu inork kanturik eskaintzen. ●



50^{urte}
TXERTOa

TRETATXU
LAPURREN GOBERNADOREA
Hektor Ortega

TELESFORO MONZON
ARISTOKRATA ABERTZALEA
Pako sudupe

www.txertoa.eus

be
gi
ra

